

Auzoz auzo, jairik jai



Hurrengo asteetan jaietan murgilduko dira Etxeberrieta, Goiburu eta Buruntza auzoak / 2-5

Mafalda Saloioekin, bere ibilbideaz

Donostiako Musika Hamabostaldiak ekoiztuta,
"Itsasotik" opera prestatzen ari dira Saroben.
Saloio ikuskizunaren zuzendari artistikoa da / 8-9



Imanol Ansa
urnietarrak
eliteko lehen txapela
irabazi du
erremontean / 10



UZE Urnietako
txirrinduzaleak
Piriniotan izan ziren,
Tourra bertatik igaro
aurretik / 11

GALARRETA JAI ALAI

ERREMONTA JAIALDIA

UZTAILAK 23 LARUNBATA

16:30etik aurrera

GOIKOETXEA V vs EZKURRA II
SEGUROLA - JUANENEA vs ALDABE - MARTIRENA
ZUBIRI vs AZPIROZ










Sei arraunlari, Jai Batzordeko hiru kiderekin Etxeberrietan. Zutik, Nika Murillo, Xabier Jauregi, Manuel Azpillaga eta Iñaki Irulegi. Makurtuta: Juan Mari Laskibar, Imanol Ansa, Juan Inaxio Eizmendi, Xabier Artola eta Juan Antonio Irazu *Delan*. AIURRI

Arraunlari historikoei omenaldia Etxeberrietan

Etxeberrietan, 80 eta 90eko hamarkadetan, Kontxako zazpi bandera irabazi zituzten Ansa, Azpillaga, Artola, Eizmendi, Jauregi eta Irulegi arraunlari ohiak omenduko ditu uztailearen 31n. Aurrez, Jai Batzordeak seikotea hitzaspertu baterako bildu zuen

Xabier Lasa ANDOAIN

Jai Batzordeko kide den Joan Antonio Irazu *Delan*-ek azaldu zuen Etxeberrietan urtero kirolari edo kirol talde ohi bati gorazarre egitearen arrazoia. “Roberto Cabrejas kirolari handi handia izan zen bere garaian, Espainiako Estatuan, maiz, podiumera igotakoa, errekorugariren jabea eta olimpikoa, besteak beste. Eta, hala eta guztiz ere, Andoainen bere ondorengo belaunaldiek apenas daukaten haren berririk. Erreali-

tate amorragarri horrek bultzatu gintuen argitan jartzera bai bera eta bai bera bezala Andoaingo kirolaren historia urrez idatzi arren ahazturan dauden kirolariak; modu xumean saiatzen gara, noski, auzo bateko jaien baitan egin daitekeena egiten baitugu”.

Irazuri etsigarria iruditzen zaio geure historiarekin eta geure kirolariekin daukagun ezjakintasuna. “Penagarria da zenbat informazio daukagun Realeko edozein jokalariren

huskeriarik txikiaren gainean edo Messik noiz egiten duen eztula, baina aldi berean, erabat ezjakinak gara bizilagunekin, ez dakigu iraganean nola parte hartu zuten Olinpiar Jokoetan edo holako edo halako kiroleetan txapeldunak izan zirela”.

Kontxako banderen irabazle

Ahazturaren kutxan kasik geratu diren kirolari horietako sei dira Etxeberrietako jaietan, aurtun, omenaldia jasoko dutenak. 80ko eta 90eko hamarka-

detan, Pasaiaiko badien, elastiko morea (San Pedro) jantzi zuten Juan Inaxio Eizmendi, Iñaki Irulegi, Xabier Artola eta Xabier Jauregi, zein elastiko arrosa (Koxtape-San Juan) jantzi zuten Manuel Azpillaga eta Imanol Ansa dira horiek.

Estropaden historian, garaiaren arloan zikloak izaten direla diote, eta halaxe gertatu zen urte askotan (1986tik 1994ra, hain zuzen) Pasaiaiko traineruekin, nagusitasuna erakutsi baitzuten orduan San Juaneko Erreka traineruak eta San Pedroko Libia traineruak. Biren artean Kantauri itsasoan ospatu ziren estropadetako makina bat bandera eskuratu zituzten.

Bada, seikoteak epealdi historiko hori ezin gertuagotik bizi izan zuen, arraunean latz aritu baitzen, eta besteak beste, Kontxako zazpi bandera lau haizetara zabaltzea lortu zuten.

Etxeberrietako Jai Batzordeak seikotea uztailearen 15ean bildu zuen auzoan bertan, uztailearen 31n, San Inazio egunarekin batera egingo zaien omenaldiaren gaineko xehetasunak azaltzeko asmoz. Esker oneko agertu ziren seiak ere. Azpillagak hartu zuen hitza: “Egia esan, guk ere nahiko ahaztuta dauzkagu orduko ibilerak, baina pozten gaitu jakiteak herrian badela jendea gogorarazteko prest dagoena. Garai haiek ateratzen direnean, maiz kostatzen zaigu jendea-ri sinestaraztea arraunean ibiltzeaz gain Kontxako banderak ere irabazi genituela!”.

Estropadetarako zaletasuna

80ko hamarkadaren hasieran, ezin daiteke esan andoaindarren artean tostako arraunketak jarraipen berezirik zeukanik. Andoaingo Batzokia eta Errekaburu elkarteak, ordea, Santa Krutz jaien arrimuan batela antolatzen animatu ziren, eta bertan trebatu ziren arraunean goian aipatutako mutil guztiak, Ansa ezik; Upategiko semeak Hernaniko taldean egin zituen lehen pausoak.

Baliteke lehorreko lehen arraunlariak izatea andoaindar-rrak, hortaz, eta Jauregik gogoratu duenez, Pasaiaiko bi taldeetan ikusmina pittin bat piztu zuten hasieran, ea zenbateko errendimendua eman zezaketen proba moduan.

Pasaiaiko bi traineruen urrezko garaia bizitu arren, ez ziren

“famatuak” egin herrian, Ansa adierazi duenez: “komunikabideek eta ETBren kamerek ez zuten egungo jarraipena egiten, gizartearen ez ziren horrenbeste irrikaz segitzen estropadak; konparazio batera, ez zen normala Gipuzkoako barnealdeko edozein herrietan balkoietan banderak zintzilikatzea, orain bezala. Gure inguruko familia-koak, bikoteak, lagunak edo herrikideak eta abarrak urtean behin besterik ez ziren joaten gu ikustera edo animatzera, Kontxara”.

Irulegik zera erantsi zuen: “Inguruan harridura eragiten zuten gure bizimoduak, ni bezalako gazte batek nola zeukan galarazita asteburuetan parrandarik egitea”.

Nolanahi ere, kuriozoso da gauza, zeren seikoteak nolabaitteko arrastoa utzi baitzuen Andoainen, beren atzetik hainbat gaztek heldu zioten-eta arraunlari (Karlos Letamendi, Mateo Ponce, Xabier Oiartzun, Mikel Otamendi, Aitor Zabala, Isidro Ansa, Joseba Huizi, Ruben Gelbentzu...).

Pasaian, bi traineru norgehiagoka eta mokoka

Donibane-San Juan eta San Pedro auzoetako biztanleak ikamika frankotan sartuta ibili izan dira beti estropaden kontura; zer esanik ez biak ere puntapuntan zebiltzan garai hartan! Lehia ezin biziagoa, aurrez-aurre bizi ziren bi auzoetan. Andoaindarrek nahiko urrunetik ikusten zituzten zalaparta horiek, Ansa zehaztu duenez: “Entrenatu edo lehian parte hartu bai, baina gero, etxera itzultzen ginen. Eskerrak horri! Bertan bizi ziren arraunlariak, ordea, nik uste kalte egiten ziela lehertzeko zorian zegoen giro hark”.

Urruntasun geografiko eta emozional hori pasaitar askok ez zutela oso natural ulertu airtortzen du Jauregik, nolanahi ere. Pasadizoa kontatzen du, uste hori indartzeko: “Arraunean hasi ginenean, lauk (Imanol, Manuel, Juan Inaxio eta lauok) auto berean egiten genituen Andoain eta Pasaiaiko joan-eto-riak, entrenamenduetan. San Pedrorra iristen ginen autoarekin, eta gero Imanolek eta Manuelek badiako ontzia hartzen zuten Donibanera joateko. Halaxe pasagenuen negua, lehorreko entrenamenduekin. Botearekin uretan



Koxtape-San Juaneko traineruak Kontxako Bandera 1986an irabazi zutenean. Ramon Labaien alkatearekin ageri dira arraunlariak; tartean, zutik, bigarren arraunlaria Ansa da, eta zortzigarrena, Azpillaga. KOXTAPE-SAN JUAN



San Pedro trainerua Pasaiaiko portuan entrenatzen. Aurrealdean, Irulegi eta Artola. SANPEDRO ELKARTEA

sartzeko garaia ailegatu zenean, hor etorri zait San Pedroko zuzendaritzako kide bat: "Ez da posible zuena. Moztu beharra dago!". Aurkariaren sekretuak edo nik zer dakit zer elkarri kontatzeko arriskua zegoela, eta nork bere aldetik ibili beharra zeukala! Diru pixka bat eman zidaten gasolinaren truke, konfor-

"NAHIKOA AHAZTUTA DAUZKAGU ORDUKO IBILERAK, ETA POZTU GAITU OMENALDIAREN IDEIAK"

matzeko, eta horregatik, erdi txantxetan, beti esan izan dut igual neu izango nintzela estropaden historian dirua jaso zuen lehenbiziko arraunlaria!"

Banderen auzia

Herri berekoak izateak bi auzoak eta elkarri begira egoteak, bi ezaugarri horiek ere areagotu egin izan dute sanjuandarren eta sanpedrotarren arteko sesio historikoa betidanik, ziurrenik. Kontxako banderak batek irabazteak sortu ohi zituen egoerarik irigarrienak, edo mingarrienak, Irulegik gogoan duen bezala: "1990dean San Juanek

irabazi zuen Kontxako bandera, eta gogoratzen naiz hurrengo egunak San Pedroko arraunlariari zein gogorrek egin zitzaizkigun. Badiara entrenatzera irten, eta San Juaneko zaletuak hantxe genituen zain bestaldean egunero, banderarekin gora eta behera ibiltzeko ospakizunetan! Hurrengo urtean, Kontxan geuk irabaztea egokitu, eta orduan, ordaina jasan behar izan zuten San Juaneko arraunlariak!"

Bizipen entzungarrien kontalariak

Aitortu zuten bezala, gutxiago edo gehiago segitzen dute estropa-

den mundua, eta, urtean behin, behintzat, Kontxako estropadetan ikusteko aukera edukitzen dute. More eta arrosa koloreko elastiko zahar historikoak etxean gordeta dauzkate, baina ez dira ausartzen horiek jantzita Donostiara joatera, "ja ez baikara kabitzen!". Izan ere, elastiko haiek jantzi zituzten denboraldian, mutil zimel-zimelak ziren, kiroletan dagoen kiroltik diziplinatuena praktikatatu baitzuten.

Euskal Herriko estropaden historia hurbilaren zati batean protagonista izateaz gain, hitzunak eta umore onekoak dira

Roberto Cabrejas memoriale: krosa eta omenaldia

Roberto Cabrejas Cuadrado (1952-2001) altuera jauzilariaren izena daraman krosa eta omenaldi-ekitaldia ospatzen da Etxeberrietako jaietan urtero, 2008az geroztik. Rabanera del Pinar (Burgos) herrian jaio, eta txikitan, familiarekin Etxeberrieta auzora bizitzera etorri zen Cabrejas. Besteak beste, bost txandetan altuera-jauzian Espainiako txapelduna izan zen, eta behin dekatloian; 1980ko Moskuko Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen. Altuera jauzian 2,26 metrokoa da bere markarik onena (oraindik egungo euskal errekorra da).



Atletismoa utzi ostean, Kataluniako Errendimendu Handiko zentroan teknikari gisa jarraitu zuen, harik eta 2001ean auto istripuz hil zen arte. Argazkian, Roberto Cabrejas 2000ko azaroan, Jesus Mari Leizeaga arraunlariaren eta beraren kirol ibilbideak biltzen dituen liburua aurkeztu zuten egunean (AGIRRE, Iñaki: *Joko Olinpikoetako albistegia*. Andoingo Paperak, 2000).

Etxeberrietan kirolari omenduak, urtez urte:

- 2008: **Roberto Cabrejas**.
- 2009: **Pablo Izagirre**, ziklista ohia.
- 2010: **Gurutz Gantzarain**, ziklista ohia.
- 2011: **Bea Garcia**, Añorga eta Bartzelonako futbolari ohia.
- 2012: **Luke Unanue**, pala jokalaria ohia (munduko txapelduna).
- 2013: **Agustin Arrieta**, Betis eta Santanderreko futbolari ohia.
- 2014: **Toti Martin**, boxeolari ohia.
- 2015: **Rosa Montero**, korrikalari ohia.
- 2016: **Andoingo lehen emakume futbolariak**.
- 2017: **Xabier Bitoria**, erremonteko jokalaria ohia.
- 2018: **Pako Agirre**, Euskalduna eta Alaveseko futbolari eta entrenatzaile ohia.
- 2019: **Bixente Huizirekin** atletismoan 70eko hamarkadan jardun zuten **lehen emakume gazteak**.

Etxeberrietako Jai Batzordeak mahai baten inguruan uztailearen 15ena bildu zituen sei arraunlari ohiak. Horregatik, gertakizun eta pasadizo mordoska kontatzeko okasioa eduki zuten bertan, pare bat zurito hartzearekin batera. Esan beharrik ez dago afari batean bilduz gero, ze tamainako hitz-aspertuari ekingo lioketen!

Uztailearen 31n, Etxeberrietako jaien baitan Roberto Cabrejas Memorialean egingo zaien omenaldian, eta ondorengo hamaketakoan, edukiko dute parada kontu zaharrak biziberritzen segitzeko!

ETXEBERRIETAKO JAI EGITARAUA



2019an auzoen arteko desafioa egin zen auzoz auzoko jaietan. Argazkian, sega desafioa Etxeberrietako jaietan. AIURRI

BURUNTZAKO JAI EGITARAUA



Soka dantza, 2018ko jaietan. AIURRI

UZTAILAK 29

OSTIRALA

17:00 Jaien hasierako txupinazoa.

17:30 Euskaraldiaren txokoa Etxeberrietan, ondoren txokolatada Kotoi elkartearen.

18:30 Haurrentzat jolasak Etxeberrietako plazan.

19:00 Patata-tortilla lehiaketa.

20:00 Afari-merienda zelaian.

21:00 Kontzertua: Merina Gris, J.Martina, Zigor DZ.

UZTAILAK 30

LARUNBATA

12:00 Sagardo dastaketa Etxeberrietako plazan.

16:00 Mus lehiaketa Kotoi elkartearen.

18:00 Herri Kirolak Etxeberrietako belazean:
Etxeberrieta vs. Goiburu.
Egin beharreko ariketak:
Sega, lokotxak, txingak eta korrika saioa.

20:00 Danborrada.

20:30 Kontzertua:
Dukkha, Ken Bat.

UZTAILAK 31

IGANDEA

10:00 Kalejira.

10:00 Krosa. Ondoren, omenaldia.

11:30 Meza Santa Krutz elizan.

12:00 Kantujira,

12:00 King-Boxing erakustaldia.

14:00 Bazkari herrikoia.

20:00 Toka lehiaketa.

20:00 Sardina jatea.

20:30 DJ Kl.

ABUZTUAK 15

ASTELEHENA

19:00 Susana Cencillo akordeoilariaren eta Iban Gurrutxaga gitarristaren emanaldia. "Hango eta hemengo kantak" izeneko emanaldia, Gaztañaga sagardotegiaren kanpoaldean.

ABUZTUAK 16

ASTEARTEA SAN ROKE EGUNA

10:30 Olagain txistularien kalejira auzoan barrena.

11:00 Meza auzoko hildakoen alde, San Martin eliza zenaren aztarnen inguruan. Kantari ariko dira bertsolariak.

11:30 Soka dantza, txistularien eta Urkikoen eskutik.

11:30 Euskaraldiaren txokoa.

12:00 Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Agin Laburu.

12:45 Toka txapelketa.

13:30 Bazkaria Gaztañagan. Aitor Mendiluze eta Agin Laburu bertsolarien saioa.

18:00-20:00 Erromeria Elustondo anai-arreben eskutik.

Uda honetan auzoz auzoko jaiak Aiurri.eus gunean



Argazki-bildumak



Bideo sorta zabala



Kronikak, iritzia

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



SAN ESTEBAN AUZOKO JAI EGITARAU



Jon Osa eta Estebe Lopez de Munain festazaleak lanean sagardo dastaketan, 2019ko jaietan. AIURRI

UZTAILAK 31

IGANDEA

06:00 Oilasko biltzaileen kalejira, baserriz baserri, trikitilarien laguntzarekin.

14:30 Oilasko biltzaileen bazkaria Txertota jatetxean.

ABUZTUAK 3

ASTEAZKENA

11:30 Jaiei hasiera. Suziriak eta kanpaiak auzoko ermitatik.

12:00 Meza San Estebango ermitan, Andoingo abesbatzarekin. Ondoren hamaiketako plazan.

12:30 Pilota partidak frontoian. Eskuz binaka: Loidi-Arberas eta Santa Cruz-Jauregi.

13:00-14:00 Gora Kaletxiki txaranga. Bertan bazkaltzeko aukera egongo da.

17:00-19:00 Maialen eta Iñaki Lopez de Munain trikitilarien emanaldia.

17:00 Mus eta toka lehiaketa.

20:00 Bertan afaltzeko aukera.

ABUZTUAK 5

OSTIRALA

21:00 Auzo afaria San Estebango plazan. Urtero bezala, auzolanean prestatu eta zerbitzatutako afaria. Txartelak aurrez salgai Urrats inprimategian eta Txertota jatetxean. Afal aurretik Kantujirako lagunak izango dira plazan.

23:30-02:30 Kontzertua Bide batez taldearen eskutik.

20:00-21:00 Bus zerbitzua, Zumeatarra elkartearen paretik.

00:00-04:00 Gautxoria, Zumeatarraren paretik.

ABUZTUAK 6

LARUNBATA

09:30-10:00 Malkar kroseto dorsal banaketa. 100 dortsak, besterik ez. Izen-ematea herrikrossa.eus webgunean.

10:30 Malkar krosaren hasiera plazatik. Ondoren partaideen hamaiketakoa.

14:00 Plazan bazkaltzeko aukera.

16:30-20:00 Bus zerbitzua, Zumeatarra elkartearen paretik.

17:00 Euskaraldiako txokoa.

17:00 Auzotarren arteko desapiyua.

18:00 Andoingo hiru artisauen eskutik, garagardo dastaketa.

18:30-20:30 Malkogariyak taldea. Puntu morea ere izango da plazan, informazioa emateko prest.

21:00 Afaria. Larrea katerina frontoian. Tiketak ostiraletik salgai txosnan 28 eurotan.

00:00-03:00 Gabezin talde nafarraren eskutik.

00:00-04:00 Gautxoria, Zumeatarraren paretik.

ABUZTUAK 7

IGANDEA

11:00 Pilota partidak. Eskuz: Mirian Arriza-Miren Larrarte eta Nora Mendizabal-Irati Zabala. Ondoren, IV. Pala txapelketako finala.

14:00 Plazan bazkaltzeko aukera.

16:30-20:00 Bus zerbitzua.

18:00 Sagardo dastaketa, auzoko patata-tortilla eta pintxoekin

18:00 Erromeri maratoia, Baltzola eta Andonegi trikitilariekin. Lontxo Iraola Bengoetxearen omenez.

21:00 Plazan afaltzeko aukera.

22:30 Oier Baltzola eta Unai Andonegi trikitilariak.

22:30-00:30 Gautxoria, Zumeatarraren paretik.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiz harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketzaileak: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:


Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



 KOMUNITATEA
 GURASOS BETERRI-BURUNTZA

Arkaitzerreka erreka kutsadura, gertakaria dela eta

Egun gutxi dira, dagoeneko, diametro handiko hodi batetik likido okre-gorrixka eta aparra ateratzen ari dela. Hodi horrek Arkaitzerreka erreka isurtzen du, Tratamendu Mekaniko Biologikoko instalazioak eta erraustegia dauden plataformatik behera.

Egun horietan, azalpen publiko bakarra bi lerroko ohar labur bat izan da, uztailaren 14an Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak (GHK) argitaratua. Bertan, instalazio horietatik isurketa bat izan dela ukatzera mugatu dira. Horrekin batera ekarpen kutsatzaile horren laginak hartzen ari direlaren berri ematen dute eta informazio gehiago zabalduko dutela agintzen dute, lagin horien laborategiko emaitzak izan bezain laster. Baina hori astebete atzeratu daiteke.

Lehenik eta behin, atentzioa ematen du ingurumeneko edo industriako kontrol-eskumena duen ezein agintaririk, batez ere Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela inolako oharrik argitaratu, ez eta erraustegiko instalazioetan ikerketa- edo ikuskapen-eginbideak burutu ere. Ez da

izan ez 112ren oharrik, ez eta horri buruzko bestelako publizitate edo informazio ofizialik ere.

Deigarria da, bestalde, GHK, arduraduna izatearen susmagarri nagusia, ikertzaile "ofizial" moduan agertzea, toki horretako instalazio arriskutsu eta kutsatzaile bakarraren titularra denean, eta, horregatik, ikertu egin beharrekoa.

Hirugarren egoera deigarria GHKk argitaratutako oharra bera da, ez baitu ukatzen gertaerarekin zerikusirik duenik. Argi dago instalazio horietatik ez dela isurketarik egin. Begi-bistakoa dela diogu, inork ez baitu esan isurketarik egon denik. Are gehiago, sare sozialetan argitaratutako bideoek agerian uzten dute 2020ko maiatzeko isurketa gertatu zen isurketagunea dagoen kanala garbi dagoela. Plataformaren ondoko drainaren irteeran sortzen da arazoa, ur beherago dagoena.

"HONDAKINEN PARTZUERGOAREN BETEBEHARRA GARDENTASUN OSOZ JARDUTEA DA"

Horrek esan nahi du ez gaudela ustezko isurketa baten aurrean, baizik eta balizko lixibiatuak iragaztearen aurrean — kontuan izan isurketaren eta iragazketaren arteko aldea—, edo lurtean iragazi eta kutsadura-gertaera eragin duten instalazioetako prozesuetan sortutako beste substantzia batzuk.

GHK-k esaten duena baino askoz gehiago jakingo du, seguru. Hala ez balitz, gertatutakoarekin inolako harremanik ez izatea ukatuko luke. Ez du egin. Existitzen ez den isurketa egon izana ukatzen du. Baina ez du ukatzen, adibidez, filtrazio baten aurrean gaudenik.

Zalantzarik gabe, GHK da gertatzen ari denarekin zerikusia izan dezaketen azken aste edo egun hauetan egin diren eragiketak ezagutzeko egoeran dagoena. Hondakinen hobiak, lixibiatuen kutxatilik edo bestelako instalazioak garbitzeko edo mantentzeko lanak bururatzen zaizkigu. Bere betebeharra da datu horiek publiko egitea eta gardentasun osoz jardutea.

Jakina, ez dute egingo, eta hori oso larria da administrazio publikoa den heinean. Baina

eskandalagarria da Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila *in situ* ikerketa bat egiten ez aritzea poluzioaren jatorria ezagutzeko. Edo aztarnak desagertu zain al daude? Egunak pasatzen diren bitartean, gizarteari ulergaitza egiten zaio inork ezer ez egiteak.

Berriro ere gizarte zibilak salatu du gertaera berri hau, eta ikertzen ari da. Ikerketa horien emaitzak fiskaltzaren esku daude dagoeneko, eta azkar eta zehaztasunez jarduteko eskatzen diogu. Gizarteak eskubidea du gertatzen ari denaren larritasuna, ingurumenean duen eragina eta, jakina, horren arazoak eta erantzuleak ezagutzeko. Erakunde administratibo eta judizialek erantzukizunak argitzeko betebeharra dute. Eta, jakina, erakunde politikoei gai lotsagarri bat dute eskuetan, berehala konpondu beharrekoa. Ezin gara bizi ingurumen-arazoak eta ziurgabetasuna etengabe sortzen ari diren instalazio opaku batzuen etengabeko mehatxuarekin. Kontrol demokratikoa, orain!! Porrot egin duen proiektuari behin betiko irtenbide politikoa!

POSTONTZIA

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORZIOA

GHKren oharra

Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak baieztatu du plantan dagozkion egiaztapenak egin ondoren isurketarik ez dela gertatu ziurtatzen dela. Era berean, bere instalazioetako biltegi guztien estankotasuna egiaztatuta dela ziurtatu du, dena ondo dagoela eta estankotasuna bermatuta dagoela baieztatuz.

Halaber, GHKk adierazi du informazio-espeditante bat ireki dela gertatutakoarekin bateragarria izan daitekeen edozein egoera aztertzeko, eta drainaren irteera-puntuaren laginak hartzen ari direla egunero, URA Uraren Euskal Agentziarekin koordinatuta. Gainera, puntu horren jarraipen zehatza egiten ari dela adierazi du, eta inguruan ez dela arrainik edo faunarik hil.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak azpimarratu du oraindik ez dela ezagutzen gertakariaren jatorria, baina gogoratu du eremu horretan betelanak egin direla, eta ez dela inolako hipotesirik baztertzen. Amaitzeko, GHK-k adierazi du gertaeraren emaitza eta jatorria jakin bezain laster ezagutzera emango duela berehala.

POSTONTZIA

ELA, LAB SINDIKATUAK TOLOSA

Asuncion Klinikako langileen kontzentrazioa, hitzarmenaren negoziazioaren blokeoa salatzen

Tolosako Invizako (Asunción ospitala bezala ezaguna dena) hitzarmenak ez aurrera ez atzera jarraitzen du. Martxoan eratu zen negoziazio mahaia, eta zuzendaritzak ez ditu murrizketak besterik proposatzen. Horregatik, langileek kontzentrazioa egin zuten ospitalaren aurrealdean.

Gogoratu dezagun Tolosako Invizako langileek zerbitzu publikoa eskaintzen dutela, beste eskualde batzuetan Osakidetzak egiten duena. Urteak daramatzate lan-baldintza duinak borrokatzen, eta hitzarmenaren kasuan, lan jardunari begira, administrazioko azpikontrata askotan astean 35 ordu lan egiten dutenez, hori da erreferentzia hitzarmen berri honetarako. Soldata igoerari dagokionez, KPIaren erreferentzia duten igoerak eskatzen dituzte, onargaitza baita negoziazio honen ondoren langileak



ELA-LAB

lehen baino pobreago izatea.

Hori gutxi ez, eta enpresak ukatu egiten die sindikatuari negoziazio bileretara aholkulariekin joatea, edozein negoziazioetan egin ohi denez; kasu honetan, ELAekin eta LABekin. Paradoxikoa da: eskubide horren beste aldeari betoa jartzen dion enpresak bere aholkularia darama. Horren adibide da apirilaren 7ko bileran gertatutakoa: alderdi

soziala ELA eta LAB sindikatuarekin joan zen enpresaren instalazioetara enpresako ordezkariarekin biltzeko. Enpresako zuzendaritzak, ordea, aholkulariak ordezkatuta, altxatzeko erabakia hartu eta bileratik alde egin zuen. Patronalaren helburu bakarra posizioa markatzea eta negoziazio kolektibo orekaturako eskubidea urratzea da.

Zuzendaritzak maiatzeko azken negoziazio mahaian, oso eduki eskasak aurkeztu zituen. Hala nola, bost urteko indarraldia proposatzeaz gain, aurten %2ko soldata igoera, eta 2023-2026 urteetan Osakidetzako langileentzat onartzen denaren baliokidea urte bakoitzeko. Gainera, lanaldiari dagokionez, 5 orduko murrizketa urte bakoitzeko (2023-2027).

Proposamen hori guztiz onartezina da, 2022rako, erosteko ahalmena %4,5 galtzea izango litzateke (aurreko urteko KPIaren erreferentzia %6,5 da). Bestetik, indarraldia oso luzea da, eta lanaldi murrizketa 1592ko helburutik oso urrun geratzen da. Zuzendaritzak ikusten duen helburu bakarra negoziazioak 5 urteko kostua izan zuen aurreko hitzarmena bezain beste luzatzea da.

Gogoan izan behar da, hainbat urtetako mobilizazioen eta langileen

eta herritarren borrokaren ondoren, Tolosaldeak ospitale publiko bat izango zuela erabaki zela. Gaur, plan funtzionalaren berririk gabe jarraitzen dute. Hau da, oraindik ez dakite zein ospitale mota izango den, ezta zein zerbitzu izango dituen ere. Ospitaleko langileen etorkizunari dagokionez, ez dago inolako berririk.

Beraz, enpresari negoziatorako borondatea izateaz eskatzeaz gain, Eusko Jaurlaritzari eta Tolosako Udalari eskatu diete erantzukizuna har dezatela negoziazioan eta Tolosaldeko Ospitaleko publikazio proiektuari lehentasuna eman diezaioten, honako aldarrikapen hauek betez: Ospitale publikoa izatea %100ean, eta hurbileko eskualdeko ospitale batek izan ditzakeen zerbitzu guztiak eman ditzala Asuncion ospitalean hainbeste urtez zerbitzu publikoa eskaini duten langile guztiekin.

ANDOAINGO EUSKARALDIA BATZORDEA IRAILEAN ABIATUKO DA

Parte hartu nahi al duzu?

IDATZIGUZU andoain@euskaraldia.eus e-postara



Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Gozotik ibili ohi da Mafalda Saloio aktorea eta zuzendari artistikoa oholtzaren bueltan lan egiten duen bakoitzean. Aktore gisa zenbaitetan, fokuen atzean, beste hainbestetan, eskarmentu luzea du antzerkigintzan.

Lisboan, jaioterrian hasi zuen ibilbidea, eta orain hamaika urte ailegatu zen Euskal Herriara, beste herrialde batzuetan izan ostean. Egunotan, Saroben dabil, izan ere, "Itsasotik" operaren -Donostiako Musika Hamabostaldiaren ekoizpena- zuzendari artistikoa da.

Lisboatarra zara jaiotzez, baina Parisera eraman zintuen antzerkiarekiko zaletasunak: Jacques Lecoq Nazioarteko Antzerki Eskolan formatu zinen, zehatz mehatz. Nola oroitzen duzu jauzi hori?

Kazetaritza ikasi nuen unibertsitatean, Lisboan. Bien bitartean, antzerkia ere egiten nuen konpainia batekin, alegia, banuen jada harremana oholtzarekin eta neure burua kazetaritzan baino, bertan kokatzen nuen gehiago. Gauzak horrela, lagun batek Parisera jo zuen Jacques Lecoq eskolan ikasteko. Hari horri tira egin eta haren atzetik joan nintzen ni beranduago: oso proposamen interesgarria da, gustuko dudalako beren lengoaia, antzerki fisikoa. Era berean, makina bat jatorriekin lan egiten duen eskola da, nahasketa aberasgarria. Inprobisaketari bide ematen zitzaion, adibidez, eta nork bere jatorriko hizkuntzan antzez zezakeen. Elementu asko elkar gurutzatzen diren bidaia ederra da. Garrantzi handia ematen zaio bertan taldean lan egiteari.

Antzerki zalea al da Lisboa?

Nire ustez, bai. Nahasketa polita ematen da antzoki konbentzionalen eta bizirik dauden espazio alternatiboen artean. Azken horietako askok, gainera, komunitatearekin egiten dute lan; hiritarrek antzerkia jorratzen da. Oso ekimen interesgarria dago, adibidez, Intendente auzoan, bizilagun guztiak mugitu ditu antzerki-dantzak. Tamalez, turismoa medio, beste toki batera aldatu behar izan dira.

Zure hastapenetan, hortaz, Lisboatik Parisera egin zenuen salto, antzerkigintzan sakonago murgiltzeko. Bertigoa eman al zizun jauzi horrek?

"Gauza asko eraldatzeko gai da antzerkia"

MAFALDA SALOIO AKTOREA ETA ZUZENDARI ARTISTIKOA

Easo Eskolaniak eta Easo Gazte Abesbatzak "Itsasotik" operaren aurrestreinaldia egingo dute uztailearen 31n Sarobe arte eszenikoen gunean



"Itsasotik" antzezlanean zuzendari artistikoa da Mafalda Saloio. AIURRI

Unibertsitate-ikasketen bigarren mailan, Lisboako espazio alternatiboetan antzerkia egitea helburu zuen konpainia bat sortu nuen bizpahiru lagunekin, Lugar Vagon (1998-2005). Oso talde zorro ginen. Zenbait proiektu egin genituen, hala nola, Lisboako Docapesca-n obra bat muntatu genuen, bi urtean, Rio Sabor itsasontzian, Vou Vai Ando. Antzerkigintzan murgiltzen jarraitu nahi nuela sentitu nuen une horretan, baita behin kazetaritza-ikasketak amaituta, klaseak ematen nituenean ere. Lagungarria egin zait gertukoek eman didaten babesa, erabakia hartzean. Jakin banekien lanbide prekarioa dela, baina motibazioek eta gogoek beti izan dute bertigoak baino pisu handiagoa.

Horrela, behin Pariseko ikasketak amaituta, etxera itzuli nintzen animaziora bideratutako antzerkia lantzen duen konpainia batekin lan egitera Caldas da Rainhara. Halaber, Lugar Vagon konpainiarekin ere egitasmoak egiten jarraitu nuen.

Brasilera ere eraman zaitu antzerkiak.

Birritan joan naiz. Jada gure artean ez den lagun handi bat, Maria Gabriella Llansol; idazlea zen, eta Belo Horizonteko unibertsitatean lan handia egiten dute autorearen obrarekin. Ondorioz, bi urte ezberdinetan, hilabete inguruko erresidentzia egiten izan naiz, testua mugimendua eta kantua lantzeko.

Hara eta honako joan-etorrian Euskal Herriarekin egin zenuen topo. Nola?

Maitasunak ekarri ninduen, orain 11 urte hona. Ez nuen Euskal Herria ezagutzen. Gogoan dut nola izan nintzen duela urte dezentente Donostiako geltokian interraila egiten ari nintzela. Tren geldialdi hori zen hona bizitzera etorri baino lehen Euskal Herriarekin neukan harreman bakarra. Etxean sentitzen naiz, eta nire euskara zorrozten ari naiz apurka-apurka.

Zaila izan al da hemengo antzerki-testuinguruan txoko bat izatea?

Proiektu asko nituen eraikita garai hartan Portugalen. Euskal Herriera bizitzera etorri aurretik zenbait bisitaldi egin nituen, hemen gutxieneko lana bermatu ahal izateko. Kulturgune batean klaseak emateko aukera suertatzean etorri nintzen. Arlo horretan, *workshop* delakoetan

neure bidea egiten ari naiz harezkerok.

Oholtzako lanari dagokionez, zailagoa egin zait, batez ere, lehen bostpasei urteetan. Konpainia arrakastatsu batekin nabilen Portugalen, eta hori hemen programatzea, esate baterako, ez da lan makala izan. Programatzaileek oso gutxi arriskatzen dutelakoan nago, baina hori ez da soilik hemengo arazoa, hots, Portugalen ere asko gertatzen da.

Komunikazio berbalak taula gainean pisua izanik, nolakoa da zuretzat ama hizkuntza ez den beste hizkuntza batean lan egitea?

Ez dut erraztasun handirik hizkuntzak zorrotz ikasteko; neurrera egokitzen ditut, eta, hortik abiatuta, komunikatzen, transmititzen ahalegintzen naiz. Portugalen nagoenean, proiektu baten ideiar eusteko zehar-zehar lan egiten dudala ohartu nahiz, hau da, bide bat baino gehiago eraikitzen dut muinera ailegatzeko. Aldiz, Euskal Herriak zuzenago lan egiten erakutsi dit, hemen nagoenean sentitzen dudana energiagatik.

Zailagoa da berezkoa ez duzun hizkuntza batean lan egitea. Harelere, nahiz eta guztiz ongi ez jakin, ez gaztelera, ez euskara, eroso sentitzen naiz komunikazioan. Aldi berean, proiektu askotan, Turak konpainia frantsesean adibidez, hutsetik asmatutako hizkuntza batekin egiten dugu lan. Formatu horrekin ere oso eroso sentitzen naiz.

Hitzari erreparatzeaz gainera, gorpuzari pisua ematen diozu eszenan. Horretarako, antzerkia, dantza eta musika uztartzen dituzu, maiz.

Eszenan jende askorekin lan egitea dut gogokoen: begiko dut pertsona bakoitzak modu indibiduallean duen energia ikustea, eta baita, modu berean, energia horiek guztiak, masa organiko batean mugitzen direnean, sortzen den indarra sentitzea ere.

Diziplina anitzekoa da oholtzan gorpuzaren agerpena. Esaterako, orain aurki estreinatuko dugun obra honetan, "Itsasotik", ahotsak eta pianoak garrantzi berezia dute. Nola sartu, hortaz, pianoaren melodia gorpuztean? Inprobisaziotik abiatzen naiz sortzeko; mugimendu batetik, egoera batetik ideia jakin batetik.

Aktore aritu ez ezik, fokuen atzean ere eskarmentua daukazu. Urruti-ra jo gabe, "Itsasotik" operako



Easo Eskolaniaren eta Easo Gazte Abesbatzaren arteko elkarlanaren emaitza da "Itsasotik". WWW.MAFALDASALOIO.COM



Emaus Fundazioarekin eta Gema Pocolarekin batera landu dute eszenografia. WWW.MAFALDASALOIO.COM

zuzendari artistikoa zara. Zer duzu nahiago, publikoaren atzeko ala aurreko lana?

Biak edo biak ditut gustuko, eta bakoitzak berea ematen dit. Egia da duela urte eta erditik ez dudala taula zapaltzen, eta *morriña*

"INPROBISAZIOTIK ABIATZEN NAIZ SORTZEKO; MUGIMENDU BATETIK, EGOERA BATETIK"

sartu ohi zait. Laster, abuztuaren 14an, bakarka arituko naiz Portugalen. Oso gogotsu nago! **Antzerkigintzan, oraindik ere nekez ikusten ditugu emakumeak erabaki-postuetan.**

Oholtza pixkanaka hartzen ari garen arren, bide luzea dago aurretik. Oraindik ere emakumeoi kosta egiten zaigu geure txokoa aurkitzea, fikzioaren sorkuntzaz ari garenean. Gaur gaurkoz, bestelako kolorea duten espazioak falta dira, munduaren beste irakurketa bat egiteko.

2000. urtetik aurrera, antzerkitik abiatuta, komunitatearekin esku-hartze sozialeko lanaren aldeko apustuan zabilta buru-belarri. Zer ekarpen egin diezaioke diziplina horrek gizarteari eta haren garapenerari?

"OSO NIRE SENTITZEN DUT ANTZERKIA ETA KOMUNITATEA UZTARTZEN DIREN ESPAZIOA"

Gauza asko eraldatzeko gai da antzerkia. Madalena Vitorino koreografo portugaldarrarekin asko ikasi nuen horri buruz. Oso nire sentitzen dut antzerkia eta komunitatea uztartzen diren espazioa.

Testuinguru diferenteak bizi dituzten kolektiboekin lan egitea gustatzen zait. Errealitate-tik hurbil dagoen fikzioa da; errealitatea bera desitxuratuta, finean. Oso emaitza ederrak ateratzen dira; besteak beste, gai sozialak irudikatzen ditugu antzerkiak ematen dituen baliabideekin. Kolektibotasuna sortzen du horrek, talde-izaera, aldarrikapenerako, zer pentsatua emateko, ideiak indartzeko...

Idea horri tiraka, Saroben, hilaren 31n aurrestreinatuko duzuen obran, "Itsasotik", Emaus fundazioarekin elkarlanean ariko zarete, atrezooa lantzen.

2018an, Easo Gazte Abesbatzaren operaren eszenografia Emausekin egin genuen. Bertara joan ginen guztiak, eta bertakoekin sortu genuen atrezooa, material berrerabilgarriarekin. Bestalde, beraiek ere parte hartu izan dute obraren hasieran.

Orain, Easo Eskolaniarekin batera ariko dira lanean Easo-Gazte Abesbatzako kideak eta Emausekin harremana berreskuratuko dugu obra honetarako. Modu horretan, obra baten altxamenduaren prozesua gertutik bizitzeko eta bertan parte hartzeko aukera izango dute gaztetxoek. Balio handiago ematen dio horrek ikuskizunari. Gainera, hilaren 31n ikusteko aukera egongo den azken emaitzaren atzean lantalde handi bat dago.

Zerekin egingo dute topo ikus-entzuleek?

Irudietatik abiatutako istorioa da "Itsasotik", mugimendua ahotsa eta musikaren nahasketak. Neskatala baten istorioa kontatzen du, arrain batek irensten duenean hasten duen bidaia. Horren bitartez, hiri gris bat ezagutzen du, baita bertako biztanleak ere. Itsasoari buruzko hausnarketa ere bada, are gehiago, egun, itsasoa arazo askoren mugalde izanik.

Bi koro elkar gurutzatzen dituen obra da "Itsasotik", eta, musikaren laguntzaz, publikoa istorioan murgilduko da, begien bistan hain ikusgarriak ez diren elementuekin bat egiteko.



Azpirozek urnietarra altxa zueneko, irabazi berritan. Urnietarrak lehen txapela lortu zuen une bera da. **ORIAMENDI**

Ansaren lehen txapela

ERREMONTA Ansak eta Azpirozek San Fermin txapelketa garrantzitsua irabazi zuten Ezkurra eta Juanenearen aurka (30-26). Urnietarrak berebiziko partida jokatu zuten; izan ere, 17 tanto egin eta soilik bi akats zituen

Mikel Arberas URNIETA

Ansak eta Azpirozek irabazi dute San Fermin Torneo, Ezkurra-Juanenea bikotea mendean hartuta (30-26). Ansak txapela preziatua eskuratu zuen eta iragan finaleko arantza kentzea lortu zuen. Bikote gisa oso ondo aritu ziren, eta urnietarrak asko lagundu zion Azpirozi. Txapelketan bikote orekatuena eta eraginkorra izan zen; hala erakutsi zuten finalean ere.

Bikote garaileak gogor ekin zion partidari eta lau tantoko aldea ere lortzera ailegatu ziren (8-4). Erritmoa nabarmen handitu zuten eta hamar tantoko aldea eskuratu zuten. Garaileek segurtasuna erakutsi zuten eta aurkariak, berriz, nahi bezala jokatu ezinik ibili ziren.

Partida erabakita zegoela ziru-ru-ruen, aldaketa handia jazo

zen norgehiagokaren noranzkoan; Juanenea partidaren martxara egokitu eta hamar tantotik lau tantora murriztu zuen markagailuko aldea (26-22). Abantaila hiru tantokoa baino ez zenean

(28-25), urnietarrak bi pareta ikusgarria egin eta partida garaipenerantz bideratu zuen. Azken tantoa ere, Imanol Ansak egin zuen, erreboteko pilotakada indartsu batekin.



Ezkurra eta Juanenea, txapeldun-ordeak. Ansa-Azpiroz, txapela jantzita. **ORIAMENDI**



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

“Ansak partida bat irabazi dik!”

Imanol Ansak San Fermin Torneoko finala irabazi zuen pasa den ostiralean. Azpiroz lagun, 30-26 menderatu zituzten Ezkurra eta Juanenea. Lagunekin ikusi nuen partida, eta bukaeran norbaitek bota zuen: "Joño, Imanolek final bat irabazi dik halako batean!". Barre algarak. Hurrengo goizean, tabernan gosaltzen ere hizpide, erremontea. "Gaurko notizia duk Imanolek final bat irabazi dikela!". Aipu edo komentario bat kasualitatea izan liteke, bi ja ez.

Imanol Ansak erremonteko txapel bat jantzi du. Ospatu zuen, lagunekin, baina hartu duen lasaitasunarekin gozatu du, gehien. Gaietik kendu duen presio edo zamarekin. Ez bere gain sentitzen zuen presioarekin, jendearen presioa baizik. Imanol Ansak baditu hamaika txapel jantziak baina goreneko mailako bat falta zuen, orain dagoeneko ez. Bost zeramatzan galduta jarraian, zehazki. Lau Urrizaren aurka, bat Endika Barrenetxearen aurka.

Galduta ere dena ez da porrota. Ansa galdutako azken hiru finaletan kontent zen. Maila ona eman zuela pentsatzen baitzuen, joko maila ona erakutsi, aurreko

bietan ez bezala. Jendarteak, baina, ez du berdin pentsatzen. Garaipenak bakarrik balio duen honetan, berak galdu egin zuen, eta final bat galdu duen aldiro zer etorriko zitzaion bazekien: jendearen damua. "Urrizaren aurka beti duk zaila, Imanol". Edota "lasai, etorriko duk hurrengoan". Nola ez, "gero eta gertuago daukak, ez etsi!".

Ansak karga-karga eginda bukatu izan ditu finalak galdu osteko asteak, astun egiten zaizkion mezuak entzun beharraren poderioz. Solasaldi ia bakar finala izaten baita, finala jokatu eta hurrengo egunetan. Imanolek bazekien finalen bat irabaziko zuela egunen batean, baina baita berak bere buruarengan konfiantza handiagoa duela, jendeak berarekin duena baino. Ansak lanean jarraitzen du, pausoz-pauso. Jendearen presioa kendu du bizkar gaitetik, San Fermin torneoko txapela irabazita. Etorkizunean Urrizak jartzen duen presioa gainditzea izanen du erronka.

Historiako erremontista onenetakoren aurka (onena akaso), hainbat final galdu izanak mereziko du, bada, penitentzia apur bat.



Zaletu ugari erakarri zuen finalak, Galarretan. **ORIAMENDI**



LUZE

Urnietako txirrinduzaleak Piriniotan

TXIRRINDULARITZA Hogeit bat lagunek hartu zuten parte UZE Urnieta Zikloturista Elkarteak urtero egiten duen Pirinioetako irteeran, pasa den larunbatean. Lourdes eta Bagnères de Bigorre herrien artean dagoen Loucrup herrian jarri zuten kanpamendua, eta handik Tournalet handia igo, Sainte Marie de Campan herritik.

Kide zenbaitek Aspin eta Hourquette d'Ancizan mendateak ere igo zituzten, eta multzoko indartsuenek Luz Ardiden ere bai. Bero sapa handia jasan zuten eta geltoki ugari egin zituzten ur potoak han eta hemen bilatzeko. Gauean goiz eta eguerdian egindako ahalegina berdindu zuten, Besabin egindako afari oparoan.



LUZE



Gabirondo, txapela jantzita. EITB

Bosgarren txapela irabazi du Gabirondok, Euskal Herrikoan

SEGA Aiako belardietan nagusitu zitzairen Pardo, Lizartza eta Otegi finalistei

Xabier Lasa ANDOAIN

Modu tradizionalen, alegia, ordubeteko saioan nork belar gehiago ebaki jokatu zuten, eta Gabirondok 105 kiloko alde atera zion bigarrenari, Iban Pardori. Hona, azken sailkapena:

1. Julen Gabirondo 2.092 kg.
2. Iban Pardo 1.967 kg.
3. Mikel Lizartza 1.902 kg.
4. Jon Otegi 1.770 kg.

Txapelketa Aiako Andatza auzoan jokatu zen, igande eguerdian. ETB1k saio osoa gauze eskaini zuen. Internet sarean EITB.eus webgunean ikusgai dago orain.

Julen Gabirondoren bosgarren txapela

Urnietarrak, horrenbestez, Bixente Mitxelena oiartzuarraren marka ondu du: iaz, gauza bera egin zuen Jose Gabirondo osabak zeukan lau txapelen markarekin.

Juanan Legorburu ETBko kazetariaren galderei erantzunez, Gabirondok adierazi zuen lehenbiziko bi helburuak bete dituela, Gipuzkoako eta Euskal Herriko segako txapelak, eta hemendik aurrera aizkorari eta harriari helduko diola. Hain zuzen, uztailaren 26an Gipuzkoako aizkora txapelketan hartuko du parte, eta ondoren, Euskal Herriko Pentatloia txapelketan.

Txapela nori eskaintzen dion galdetuta, zerrenda luzea aipatu zuen Gabirondok: "Etxetik hasi, eta segituz biltzaile kuadrillari, Andoni lehengusuari, aste honetan joan den Aierdiko Angela Garmendia 95 urteko bizilagunari, txapelketa izaten zen aldiro nire aldeko kandela pizten zuelako eta gaur ere haren indarra sentitu dudalako, eta azkenik, Mikel Garaialde lagun minari bihotzean daukagulako".

Bolondresak behar dituzte

TXIRRINDULARITZA Donostiako Klasikoa uztailaren 30ean igaroko da Urnietatik, eta lasterketaren segurtasuna bermatzeko boluntarioak behar dira. Zehazki, bidegurutzeak zaintzeko. 15 bat lagun behar dituzte eta laguntzeko prest daudenek Urnieta.eus gunean izena eman dezakete, inprimakia betez. Izena emateko epea uztailaren 29an amaituko da.



AIURRI



Joanes Iturrarte baloiarekin. Argazki-bilduma, aiurri.eus webgunean ikusgai. AIURRI

3x3 Basket Street finala asteburuan

SASKIBALOIA Hamasei taldek ekin zioten txapelketari, eta azkenetara iritsi dira jada. Ostiral arratsalderako iragarri dute azken saioa. Hala ere, eguraldiak baldintza dezake, eta baliteke ostegunean edo igandean egitea, ordutegiari eutsita

Erredakzioa ANDOAIN

Final erdiak, ostiral honetan:
17:30 Aquanis-Kata y Kila W.
18:00 Geriatric-Vikings.
19:30. 3. eta 4. postuak.
20:00. Finala.

Bukatzeko, sari banaketa eta zizka-mizkak. "Hiruko" eta "Txu Bol" (Two Ball) txapelketak ere iragarri dituzte egun berean. Hona aurtengo parte-hartzaileak: Ambizurdos, Argigorrieta, Voz-

ka Junios, Bar-Bi, Kata y Kila Wildcats, Splashbrothers, A-P, Los Txistularis, Vikingos, Suzko Uzkia, Geriatrik, Patxanga, Not in my house, Mixto York, Aguanis eta Tamagochi Firm.



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI



Mikel Ezeiza txapelketako estraineko partidari sakaia egiten. AIURRI



AIURRI



AIURRI

Pala txapelketa Goiburun

PALA Erakarpenerako txapelketa izan ohi da, izan ere, teniseko pilotarekin jokatzeko erraztasuna handiagoa delako eta herritar ugari parte hartzen dutelako. Finala are bereziagoa izaten da Goiburuko festen egitarauan sartzen baita

Erredakzioa ANDOAIN

Uztailaren 18an hasi zen Goiburuko Pala Txapelketa eta abuztuaren 7ra arte iraungo du. Partidak aste barruan jokatzeko ari dira, astelehenetik ostegu-

nera eta, gutxi gorabehera, orduerdiko iraupena edukitzen dituzte partidek.

Orotara, 24 bikotek hartu dute parte eta sei azpitaldetan banatu dira. Talde bakoitzetik bi


onenak pasako dira eta talde guztien artean dauden hiru gaitzaile hoberenak ere bai. Horrela, parte hartzaile guztiek dute txapelketan aurrera egiteko aukera.



AIURRI



AIURRI



AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

LARUNBATA 23

ANDOAIN Kontzertua

"Kalegiroan" zikloaren baitan Urtz taldearen emanaldia.
22:00, Goiburu.

OSTIRALA 29

ANDOAIN Kontzertua

"Kalegiroan" zikloaren baitan Merina Gris, J Martina eta Zigor DZren emanaldiak.
21:00, Etxeberrieta plaza.

LARUNBATA 30

ANDOAIN, URNIETA Lasterketa

Donostiako Klasikoa eskualdean barrena. Adunatik Hernaniko bidean, Andoaingo eta Urnieta herriguneak zeharkatuko ditu.
Aurrikuspena: 14:40.



Joseba Tapia. TAPIA

ANDOAIN Joseba Tapiaren emanaldia Goikoplazan

"Kalegiroan" zikloaren baitan Joseba Tapiaren emanaldia.
Uztailak 25, astelehena. 20:00, Goikoplaza.



lurra,
sua,
ura,
herria



EKARPENAK

- Txartel bidez: errigora.eus
- Diru-sarrera bidez:
ES61 3035 0042 94 0421091052
- BIZUM:
aplikazioaren EMAN atalean
bilatu ERRIGORA



Urnieta
udala



egunean
behin

Hamargarren
denboraldia
irailean
abiatuko da

- "Aiurri" taldean astero zozketa egingo dugu: KM0 produktuez betetako otarra.



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



AIURRI

Topaketa feminista

"Errebeldiaz gozatu, ekin eta eraiki" lemapean egin zuten Hernanin Beterri-Buruntzako topaketa feminista. "Eta zu, zergatik zara lodifobo?" solasaldia eta tailer ezberdinak antolatu zituzten. Iluntzean Goiatz Salbador andoaindarrak kontzertua eskaini zuen. Argazkian ikus daitekeenez, Buruntzaldeako neska* ugariak parte hartu zuten topaketa feministan.



AIURRI

Plaka jarri dute gurutze eraitsian

Ernai gazte erakundeak sare sozialetan atzo zabaldu zuen Buruntzako gailurrean "Aurrean Gara Gaur" leloa daraman plaka bat jarri berri duela. Gazte erakundeak bideo bidez azaldu duenez, "Eraitsitako gurutze bakoitza askatasunaren alde eroritakoak oroitzeko ikur bihurtu dugu". Berriki kide bat deklaratzera deitu dute, gurutzearen eraisketa dela-eta.



AIURRI

Ahaldun Nagusia Urnietan

Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Etorkizuna Eraikiz programaren esparruan, Urnietan elkartu zen Jorge Segurado alkatearekin eta gobernu taldearekin. Maite Peña Gizarte Politiketako diputatua ere bertan izan zen. Kapsulak 374 ekarpen jaso ditu Urnietan, eta horien artean ingurumenaren zaintza eta birziklapena nabarmentzen dira.



AIURRI


A15 eta N1 arteko lotunea

Aurreko astean hasita, planoak ikusgai daude Basteron, Arraten eta udaletxean. Udalak berriki adierazi duenez, alegazioak aurkezteko aukera luzatzea lortu dute datorren irailaren 14ra arte. Lotunearen egitasmoari buruzko xehetasunak ikusgai daude Andoain.eus webgunean. Zeresan handia eman duen egitasmoa da, Aldundiak aurrera eraman nahi duena.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Leire Nuñez Larrea
Gure Leirek, abuztuaren 7an, 16 urtebeteko ditu. Jarraitu orain bezain jatorra izaten. Muxu asko denon partetik.



ANDOAIN
Aner Lopetegi Zatarain
Anerrek 14 urte beteko ditu abuztuaren 10ean. Zorionak etxeko guztien partetik, anaia Unax eta lehengusu Oinatzen partetik.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Uztailak 28, osteguna. Urnieta 16:30-20:30. Gazteleku.

Odola eman nahi dutenek telefonoz deitu behar dute goizean zehar txanda hartzeko: 943 00 78 84..

MERKATU-TXIKIA

IRAKASKUNTZA

Ingelesko klase partikularrak ematen dituen norbait behar dut 9-11 urte bitarteko haurrei irailetik aurrera eskolak etxean emateko. Informazio gehiago: **650 34 11 08** telefonoan.

SALGAI

Antiescaras koltxoia salgai. Tel.: **660 235 259**.



Erreserbak:
943 33 73 57 edo
info@hotelk10.com

Terraza parrillarekin

Gozatu gure parrilladak udako asteburu guztietan K10 hotelarekin

- * Ostirala: 20:00-22:30
- * Larunbata: 13:00-15:30/ 20:00-22:30
- * Igandea: 13:00-15:30





Aiurri astekaria irailean argitaratzen hasiko gara berriro.

Bitartean albisteak aiurri.eus webgunean.

UDA ON, IRAKURLE!

www.aiurri.eus



**Mendira,
hondartzara,
festara...
Uda honetan
ere zurekin
eramango
gaituzu**

